

**2017KO URTARRILAREN 26AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita sei.

HILABETEA: Urtarrila.

URTEA: Bi mila eta hamazazpia.

HASIERAKO ORDUA: Zazpiak laurden gutxi

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe.

BILDUAK: Leire Artola Ugalde

Malu Valles Fernandez

Koldo Agirre Mujika

Miren Amaia Barandiaran Velez de Mendizabal

Santiago Urdampilleta Dos Santos

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2016ko abenduaren 22ko akta onartzea.

2016ko abenduaren 22ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.-ATZEGIRI ETXEBIZITZAREN ERABILERA LAGATZEA: hitzarmena urte betez luzatzea.

Bildutakoek aho batez ondorengo erabakia hartu dute:

“AURREKARIAK

“2011ko martxoaren 31ako datarekin Atzegi elkarteak Beasaingo Udalari Oriako Pasealekua 14 zka.an duen etxebizitza lagatzea eskatu zuen, ezgaitasun intelektuala duten pertsonen zuzendutako laguntza arineko egoitza sortzeko.

Ongizate Batzordeak proposatuta Gobernu Batzordeak 2011ko maiatzaren 13an egindako bileran Oriako Pasealekua 14 tarte-oineko D etxebizitza Atzegi elkarteari lagatzea erabaki zuen.

2011ko maiatzaren 18ko data duen dokumentuan lagapenari buruzko estipulazioak jasotzen dira eta horien artean lagapenaren epea 5 urtekoa izango dela adierazten da. Bi aldeek ados jarri ezker, epea luzatea egongo delarik, beti ere luzapen erabakia espreski hartu eta gero.

2016ko urriaren 14ko datarekin Atzegi Elkarteak Beasaingo Udalari aipatutako etxebizitzako erabileraren lagapenaren berriztatzea eskatzen dio, bertan adimen

urritasuna duten pertsonentzat Bizitza Independenterako Laguntza programa burutzen jarraitu ahal izateko.

Oriako Pasealekua 14ko tarte-oinean Udalak autonomoak diren adineko pertsonentzako 3 etxebizitza babestu ditu eta Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera alojamendu zerbitzu horiek indartu eta gehitu egin eta Oriagaia eremuan eskaini behar dira. Gauzak horrela tarte-oineko D etxebizitza udalak bere eskumeneko zerbitzuak emateko erabilgarri eduki behar du.

Gizarte Ongizate Batzordeak 2016-12-28an egindako bileran, Oriako Pasealekua 14 tarte-oineko D etxebizitza Atzegi elkarteari lagapenaren luzapena egitea proposatu du, urte 1erako .

ERABAKIA

Lehenik. ATZEGIREN alde egindako Oriako Pasealekua 14 tarte-oineko D etxebizitzaren erabilera, beste urte betez luzatzea. Erabileraren lagapenak 2016ko **maiatzaren 18rako atzera eragina izango du. Beraz, 2017ko maiatzaren 18an.**

Bigarren. Lagapenaren luzapena, orain arte zeuden baldintza berdinetan egiten da.

Hirugarren. Alkate jaunari baimena ematea luzapen kontratua sinatzeko.

Laugarren. Erabaki hau jakinaraztea, beronen aurkez aurkeztu daitezkeen errekurtsioen aipamena eginez.”

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpitan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.